

6. EBERTARRAK (K.A. 1800-500)

Munduaren berezko aurrerapidean erriak sortu zira-nean, Jainkoak beretzat erri bat sortzeko asmoa agertu eban eta erri ori izango zan bide Jainkoa Egilleak ludia gaizkatzeko bere semea mundura bialdu egian.

Ebertarrak jente ibiltaria, nomadak, ziran, antxiñatik artzain-erria eta erri txikia.

Kaldea'ko Ur erritik Jainko bakarraren gurtzaille izateko alde egin eban Abraanén ondorengoak, antzain lez Kanaan'en asi ziran bizi izaten, baiña goseak eraginda Ejipto'ra aldatu ziran gari-billa eta an Faraonék morroi biurtu ebazan eta bizi era orretara moldatu ziran.



Ejipto'tik eta morroitzatik iges egin guraz, basamortuan bizi izan ziran luzaro euren lurralderantza joiazalakoan.

Bidean joiazanak ez eben ikusi bakezko orio-abarra ekarren usoa. Geroago euren errira sartu ziranean be ez. Lur menditsu eta arritsu aretan bizi izatea ez zan erreza.

Gaiña erbesteko erritarrak etorri eta zapaldu be egiten ebezan, erbesteko ogia negarrez jan bearrean euren buruak ikusi arte.

Baiña erri onen elburua erlejiña zan eta orretan aurkitu dau bere aunditasuna.

Eurak izan ziran beti Jainko bakarraren gurtzailleak. Biotzez gurtu bear zan irudi bageko Jainko aundiarenak.

Eta gizaki lez, guztiak senide zirala uste izan eben, Jabe Jainkoaren seme-alabatza euren burua artzen ebela-ko. An ez egoan beste errietan lez bereizkuntzarik, ez ziran batzuk aberatsak eta beste batzuk txiroak.

Asieran ez eben erregerik onartzen, epaikariak edo auzi-maixuak ziran euren zaintzaille Geroago erregetza-aren bidea artu eben, baiña edozein artzain-mutil zan ego-
kia errege izateko, Dabid esaterako.

Erri onek liburu bereizi bat dauka, munduan gitxi dagozen liburuetarikoa: Itun zarra. Liburu onen gaiak oneik dira Erriaren artzain-aldiko albisteak, erregeen garaipenak eta jipoi-aldiak, kanta zarrak eta atsoitzak eta elebarriak. Israel erri osoa liburu orretan zelan edo alan sartuta dago.

Banaka batzuk biurtu ziran jainko izunetara, baiña ebertarren erriaren sinismenak beti iraun dau bizirik.

OLAZAR'tar Martin'ek

Ebertarak Ejipto'n morroi

